

Txoli Mateos

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Peter Pan berriak

Gorka, 28 urte. Futboleko jolasten du asteburuetan. Partidaren ostean, amari eramaten dizkio kirol jantziak garbitzeko. Ama arduratuta egoten da egun horretan hidratoak jan behar dituelako semeak.

Mikel, 27 urte. Autonomo gisa lan egiten du eta sarritan abiatzen da bidaian. Amak prestatzen dio bidaia-poltsa. Ama, horrez gain, eguraldiaren aurreikuspenak lortzen arduratzen da, arropa egokiak aukeratze aldera.

Ane, 29 urte. Aurten lanpostu bat lortu du unibertsitate-irakasle gisa. Aita egunero-egunero joaten da etxera bientzako bazkaria egitera, osterantzean, “edozein gauza” jaten omen du-eta.

Honatx galdera: noiz amaitzen da gaztaroa?

Esan beharrik ez dago: gazte izatea, ume izatea bezalaxe, garai historiko eta gizarte-testuingurura moldatzen den definizioa da. Orain mende bat, gutxi gorabehera, ez zegoen ez haurtzarorik, ez gaztarorik. Geroago, haurra zaindu beharreko altxor bihurtu zen. Eta gaur egun, gazte izatea, ukaezineko arazo eta gabezia askoren iturri izan arren, egoera pribilegiatu ere bilakatu da. Halaxe



JUDIT FERNANDEZ

da eta aitortu beharra dago. Gobernu-agintariak aukeratzeko gaitasuna duten gazte horiek ez dira gai euren kasa bizitzeko eta egunerokotasunak dakarren arazorik ñimi-ñoenari ere aurre egiteko. Are gehiago, arlo publikoan –adibidez, militantzia politikoan– hamaika sakrifizio egiteko prest daudenek ez dute prestutasun txikiarik ere erakusten arlo pribatuan sortzen diren egoera lazgarrietan laguntzeko. Heroi eta eskuzabal gizaratean, zeken eta ezgauza etxean.

Eta, txikle magiko bat bailitzan, luzatzen eta luzatzen doa gaztaroa gure artean. Baina gaztaroa luzatzen den heinean, luzatu ere egiten da gurasoen ardura-garaia, zeren eta ume/gazte bat dagoen lekuan, heldu bat egon behar da haren zerbitzura. Peter Panek ere ez zuen hazi nahi, baina ez zuen inor ere bera zaintzeko; beste ume batzuekin bizi zen eta euren kasa ibiltzen ziren.

Gaurko Peter Pan berriek, ordea, morroi andana behar dute inguruan. Gainera “eskertu ere ez dizute egiten”, kexatzen zen lehengoan, etsita, aita bat. Eta Peter Panen uhartearen ordeztu, etxebizitza eroso eta guraso ulerkorrak aurkitu dituzte. Ulerkorregiak, agian. ■

«
Gaurko Peter Pan berriek,
ordea, morroi andana behar dute
inguruan. Gainera ‘eskertu ere
ez dizute egiten’, kexatzen zen
lehengoan, etsita, aita bat
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hatzaparrak luzeak dira. Antiklerikal larrienenak ere, bere egin ditu PCK. Beren egiturei, nahiz demokratikoak deitu, zentralismo sustantibo eusten zieten. Komite zentralak. Multinazionalen administrazio kontseiluen antzera funtzionatu izan dute beti, bestelakoak zirelakoan. Eta vaticanizazio honen ondorioa izan dugu Gaspar Llamazaresen purrustada, Arrasateko zinegotziak eragozteko agindu duenean. Ahantzi du IUK bere estatututan demokrazia hobesten zuela zentralismoarena baztertuz. Eta militanteek sinetsia zuten beren eremu propiotan erabaki ahalmena bazutela. Horrela jokatu dute, demokratikoki, aparat

Vatikanoaren

profesionalak onartuko zuelakoan. Bainan Espainiak ez du holakorik hobesten, herrietako jendarte eta klaseen gainetik Estatuak zuzendu

beharreko patu historikoa dago, Espainia bat, bakarra eta handi egiten duen hori. Eta Llamazares ere horren parte da. Arrasateko zinegotziak ez zekiten hori. Eta hautatu dituztenek ere ez. Txirlaren sentiberatasun ezarena, kimika dezente ikasi behar izan zuen medikuaren ahotan, mahaian eta plateran soilki ezagutu duenaren burges ezjakinaren hutsegitea da, hondar beltzetatik berora iragatean haren portaeraz deus ez dakienarena, bere alderdikideekiko txirlen sentiberatasuna gutxienez adierazteko gauza izan ez denarena. ■